

Enplegu Komitearen inkesta baten arabera

Gipuzkoako sagardo kopuru gehiena sagardotegi gutxi batzuren esku dago

Sagardotegi gehienak txikiak dira eta Gipuzkoan saltzen dute batez ere

Gipuzkoako sagardotegi gehienak famili-arteak direla, sagardoaren produkzio gehiena gutxi batzuren esku dagoela eta sagardo kopuru gehiena, %80 hain zuzen, Gipuzkoan saltzen dela agertzen da orain gutxi Donostialdeko Enplegu Komiteak burutu duen estudioan.

Datu horiek lortu ahal izateko 36 sagardotegiei eginiko inkesta batez baliatu da. Sagardotegi gehienak, 26 hain zuzen, Astigarraga eta Hernanikoak izan dira eta besteak Usurbil, Urnieta, Lasarte, Beterri eta Donostia ingurukoak.

Enplegu Komiteak eginiko estudioaren parterik nagusiena emleguari zuzendua izan bada ere, bide batez datu interesgarri batzu aipatzen ditu. Esaterako, sagardotegi bakoitzean, batez beste, 4 langile eta gehienez 9 langile dagoela agertzen da. Beraz, denak enpresa txikiak dira eta gehienak famili-arteak. Txikia izateak bere abantailak ditu, lana antolatzerakoan batez ere, baina merkatuan lan egiteko, propaganda eta abar, enpresa bat bakarrik txikiegi gelditzen da eta taldean ari beharra dago.

Merkaturatzeari buruz ere datu jakingarriak azaltzen ditu. %92 botiletan eta %6a txotxa erara saltzen da. Botiletan saltzen den kopurutik %69a 100.000 litrotik gora ekoizten

duen 9 sagardotegien esku dago; 100.000 eta 250.000 litro kopuruen artean 6 sagardotegi dago, %30a beren esku izanik, eta 250.000tik gora, berriz, 3 sagardotegi aurkitzen dira %39a ekoiztuz, alegia.

Bestalde, 50.000 litro baino gutxiago ekoizten duten 10 sagardotegik %7a eta 50.000 eta 100.000 litro kopuruen tartean dauden 14 sagardotegik %24a saltzen dute.

Nahiz eta portzentualki txotxak garrantzi txikia izan, ia denek erabiltzen dute era hori, bezeroak sortu, bakoitzaren produktua jakin erazi eta jatetxe moduan lan egiteko. Jakina, sagardotegietan jana gero eta garrantzi handiago hartzen ari da.

Botiletako salmenta, honako kopuru hauetan banatzen da: %28 inguruan jatetxeetan, beste hainbeste sagardotegian bertan erosle txikientzat eta %15a sozietate eta antzeko lekuetan.

Azkenik, sagorderik gehiena, %80a, Gipuzkoan, saltzen da. Beste euskal lurraldetara, ordea, %17a eta Euskaditik kanpora %3a joaten da.